



ARARTEKOAREN AGERRALDIA EUSKO LEGEBILTZARRAREN OSOKO BILKURAREN AURREAN: 2014. URTEKO TXOSTENA

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 19a

Legebiltzarreko presidente andrea, mahaikideok, lehendakari jauna, legebiltzarkide jaun-andreok, gobernukideok. Egun on.

Ohorea da niretzat Legebiltzarraren osoko bilkura honetan lehenbizikoz agertzea ganbera honetan kargua hartu eta gero, 2014ko ohiko txostenaren berri ematera. Atsegin handiz ordezkatzan dut erakunde hau Euskadiko herritarren ordezkarien aurrean, batez ere Arartekoa euskal herritarren eskubideak defendatzeko goi mandataria delako -haiek euskal administrazio publikoekin dituzten harremanetan- eta gobernantza ona sustatu ere egin behar duelako.

Joan den urriaren 26an Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Batzordearen aurrean agertu nintzen, txosten hau ezagutarazteko asmoz.

Agerraldi hartan herritarrek iaz egin zizkiguten kexen analisi kuantitatiboa egin nuen eta labur azaldu nituen erakundeak burututako jarduerak.

Gaur, osoko bilkura honen aurrean azalduko dut Arartekoa arautu zuen legeak "Autonomia Erkidegoko eskubideak babestearen egoeraren balorazio orokorra" deritzona. Mintzaldi honetarako eman didaten denbora-tartean ez dago zehatz-mehatz adierazterik eskubideak zenbateraino babesten diren Arartekoaren jardura antolatzen duten 28 arloetako bakoitzean eta Haur eta Nerabeentzako Bulegoari dagokionean. Horregatik, pertsonen eskubideak ongien babestearen ikuspegitik begiratuta, hemen azpimarratuko dut zer alderdi iruditzen zaizkigun garrantzitsuenak Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta euskal udalen sailen jardura eta politika publikoetan, eta bereziki nabarmenduko ditut talde ahulenen alde burutu dituzten ekintzak.

Nire agerraldiaren mamiari zuzenean heldu aurretik, iaz Arartekoak egin zuen lanaren datu orokor esanguratsuenak aipatu nahiko nizkizueke:

Herritarrei zerbitzua egitearekin eta administrazioak kontrolatzearekin lotura duten **8.608** jardura zenbatu zuren 2014an; horietatik 6.378 kexak dira. 2.065 jardueretan informazioa eta aholkuak eman ditugu. 93 bilera egin ditugu era





askotako gizarte erakundeekin eta. Aldi berean, 57 bilera egin ziren hainbat administrazioarekin, baita era askotako beste jarduera batzuk ere.

Eragindako administrazioak kexa sorrarazi zuen jarduera zuzendu eta aldatu du kasuetatik ia %92tan. Kasu gehienetan, ez da gomendio formalik egin behar izan eragindako administrazioak Arartekoaren arrazoibidea onartzeko. Datu horrek, aztertutako urteetako altuena izaki, agerian utzi du, berak bakarrik, Arartekoaren esku-hartzeak oso **eragingarritasun handia duela**.

1. HAUR ETA NERABEENTZAKO BULEGOA

Haur eta Nerabeentzako Bulegoak Arartekoaren baitan jarduten du.

Bere lana honela laburbildu daiteke, ikuspuntu kuantitatibo bati jarraiki: 329 kexa-espeditente izapidetu dira, horietako 33 ofiziozkoak. Hainbat gizarte erakunderekin lankidetzan aritu da eta zenbait topaketa eta eztabaida forotan parte hartu du. Erakundeak bideratutako kexa-espeditente guztietatik %12,4 inguru dira.

Kopuru horietan ez dira sartu, baina kontuan hartzea komeni da diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemarekin zerikusia duten 576 kexak. Kexa horiek zerikusia izan dezakete diru-ekasiaz pairatzeko arriskuan dauden adingabeekin.

Iaz 25 urte bete ziren Nazio Batuen Biltzar Orokorrek Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena onartu zuela. Hortaz, 2014an une oro gogoan izan dugu oroipen hori Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren jardueran. Horrela, Euskadin diruz estu bizi diren haur-nerabeen kopuruak gora egin duenez gero, hauxe gogorarazi nahi dugu:

- Hitzarmenean aldarrikatutako eskubideak mutiko eta neskatok guztienak dira, salbuespenik gabe. Horregatik, **eskubide** eta justizia **kontua** da, ez karitate kontua, lanean jardutea bizi-baldintza duinak -batez ere egoerarik txarrean daudenenak- bermatzeko.
- “Krisi ekonomikoaren” esperientziak, ezustean, aukera berberak izateko printzipioari eragin dio. Erakunde publikoen eragin babesle eta barneratzailea ahultzen denean, desabantaila egoeratik abiatu diren pertsonak nekez gainditu ditzakete dauden aldeak, desberdintasuna gero eta handiagoa da eta belaunaldiz belaunaldi helarazten da. Orobat, **eskubide kontua** da, berriz ere, desberdintasun hori haustea.

Edonola ere, Hitzarmenaz hitz egitea eskubide jabeen protagonismoa nabarmentzea da: haur eta nerabeek egiaz eskubideak dituzte, beraien hitza dute eta parte hartzeko guneak eskatzen dituzte.





2. HEZKUNTZA

Erakunde honek kezkatuta ikusi du hezkuntza-eragile nagusiek desadostasuna agertu dutela Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, euskal hezkuntza-sistema hobetzeko asmoz, **“Heziberri 2020”** planaren barruan aurkeztu dituen proiektuekiko.

Horrekin batera, gure Erkidegoan gaitzespen nabarmena jaso du hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa (LOMCE) indarrean jartzeak.

Gure ustez, gutxieneko adostasuna lortu beharko litzateke hezkuntza-eredu propioaren gainean, egungo Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea onartu zenean gertatu zen bezala.

Horrela, errepikakorrak izateko arriskua izanagatik ere, **ikasleen onarpen-prozesuari** dagokion atalean hauxe da gure iritzia: sakon hausnartu behar dira lekurik ez dagoen kasuetan ezartzen diren **lehentasun-irizpideak**, bereziki **familiaren bizilekuaren hurbiltasunari** lotutakoa, erroldako datuak neurritz gain erabiltzen baitira. Iruzurrezko jokaera hori sobera ezagutzen du hezkuntza-administrazioak, baina horren aurka ez dira behar bezainbeste neurri hartu.

Hezkuntza-plangintza dela eta, hezkuntza-arduradunek lehen abiarazitako ildoan lanean jarraitu behar dute, eta plangintza demokratikoa ahalbidetu, eskola-komunitateko ordezkari guztien partaidetzarekin.

Edonola, nahitaez ebaluatu beharra dago, oraindik ere, **Eskola Inklusiboaren esparruan Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoaren** ezarpena, izan ere, lan horri esker hezkuntza-erantzun hobea emango baitzaie hezkuntza-zailtasun bereziak dituzten ikasleei, ikasle horien egoerak beraien familien kexak sortarazten baititu etengabe.

3. OSASUNA ETA OSASUN ESKUBIDEA

Jakina denez, aldatu egin da apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretua, osasun-sistema nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko eta bere prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurriei buruzkoa. Aldaketa hori ez da erraz ezartzen ari eskumenak partekatuta dauden testuinguru honetan: **alde batetik**, osasun publikoaren aseguratuta edo onuradun izatea onartzeko administrazio eskuduna dago (Estatua), eta, **bestetik**, laguntza hori gauzatzeko eskumena duen administrazioa (Eusko Jaurlaritza).





Horrez gain, nahitaez aintzat hartu behar dira Barne Ministerioaren erabakiak -osasan administrazioarekin (GSIN edo Osasun Saila) zerikusirik ez duen hirugarren administrazioa- atzeritartasun kontuetan, bereziki bizileku baimenekin lotutakoetan.

Gaixo kronikoen eskubideei dagokienez, erakunde-laguntza handiagoa eman behar zaie gizarte ekintzak burutzen dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeei, gaixo kronikoen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzen ahalegintzen direnei.

2014an hainbat aurrerapauso egin dira espazio soziosanitarioa garatzen. Hala ere, berriro adierazi behar dugu ezinbestekoa dela zerbitzu soziosanitarioen zorroa eta dagozkion mapak onesteko prozesua burutzea eta, halaber, lurraldeetako ekintza planetarako egitura bateratua ezar dadin bermatzea.

Buru-osasunaren nahasmenduak dituzten pertsonen buruz, ahulagoak dira eta zailtasun handiagoak izaten dituzte baliabide publikoak eskuratzeko. Horregatik, botere publikoek bermatu behar dute **buru-gaixoek benetan baliatuko dituztela beraien eskubideak**. Horretarako, buru-gaixoak komunitatean egiaz txertatu ahal izateko jarduerak bultzatu behar dira.

4. GIZARTERATZEA

Diru-sarrerak bermatzeko sistema funtsezko tresna gisa sendotu da **gure gizartean bizi diren pertsonen duintasuna eta gizarte kohesioa bermatzeko orduan**. Gizarte orekak aberastasun gehiago sortzen du gizarte desberdintasunak baino. Gizarte babesa aberastasun-iturria da eta ezin diogu uko egin.

Aurten, eztabaida bizia sortu du gizartea babesteko euskal sistema publikoak. Onuradunen jatorri nazionalari buruzko informazioa azpimarratu da, bestelako zertzelada batzuen gaineratik (ahulezia egoera edo enplegua aurkitzeko zailtasunak) eta, horrela, gizarte-prestazioak iruzurrarekin lotzen dituen nahaste zorigaitzoko eta funsgabea sortu da.

Prestazioak ukatu, eten edo bertan behera uzteko arrazoiak ez daude lotuta iruzurra egotearekin, tramitatu ditugun kexen azterketatik ondorioztatzen. Hedabideetan agertu diren kasuak bakanak dira eta ez dute islatzen prestazio horiek eskatzen dituztenen errealitatea, ezta haien pobrezia-egoera ere. Arartekoari kexa egin dioten pertsona gehienek ez daukate diru-sarrera nahikorik beren behar oinarrikoenei aurre egiteko. Hori baino ez da gertatu.

Aldiz, ikusi dugunez, pertsona batzuek ez dituzte betetzen Lanbidek eskatutako baldintzak edo eskakizunak. Horregatik, herritarrei jakinarazi behar zaie prestazio horiek jaso nahi badira, anitz baldintza eta betekizun bete behar direla.



2013. urtean adierazi genuen bezala, Lanbide DBE eta EPO prestazioen kudeaketa hobetuz joan da. Egiaztatu denez, ebazpen-epeak laburragoak dira eta atzerapen gutxiago gertatzen dira errekurtsioak ebazterakoan. Ebazpenak hobeto arrazoitzean ere aurrera egin da.

Berrito diogu, oso garrantzitsua iruditzen zaigu **aurreikusitako prozedura bermeak**, bai diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko araudi zehatzean xedatutakoak, bai Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen ondoriozko araudi orokorrean ezarritakoak.

Halaber, garrantzitsua litzateke arau-hauste eta isunen araubide egokia erregulatzea, eta, bertan, portaerak zehatz-mehatz tipifikatzea, arau-haustea mailakatzea eta preskripzio araubide bat ezartzea, kontuan hartuta, besteak beste, zigor zuzenbidearen printzipioak eta, batez ere, eta proportzionaltasunarena.

Prestazioa jasotzeko eskubidea, jakina, baldintzak betetzen ez badira soilik eten edo ezeztatu beharko litzateke, eta, edonola ere, prestaziorako eskubidea eten edo iraungitzen zaion pertsonak bere oinarritzko beharrei aurre egiteko diru-sarrerak dauzkala bermatu beharko da. Baldintzen gainerako arau-haustek zigortu egin beharko liriateke.

5. POLITIKA PUBLIKOEN HARTZAILE DIREN TALDEAK

Euskal herri-administrazioek arduraz hartu behar dute beren gain norberaren autonomia sustatzeko eta **mendetasuna babesteko** eskubide subjektiboaren erronka, politika guztietan talde zaugarri horrenganako arreta lehenetsiz. Horretarako, funtsezkoa da eragindako taldeari babes handiagoa ematea eta Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretua onartzeak eskaintzen duen aukera ezin hobea aprobetxatzea, Estatuan nabarmendu den atzerakada arintzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Legea benetan ezarriko dela bermatzeko, gizarte-laguntzaren esparruan gure autonomia erkidegoari eskusiboki eman zaion eskumenaren adierazgarri garbia baita.

Era berean, adierazi beharra dago **ezgaitasunak**, ezgaituaren ahalmen ekonomikoaz gain, bere familiara ere murrizten duela: gurasoena, bikotekideena eta seme-alabena. Izan ere, egunero era askotako gastu gehigarriak hartu behar izaten dituzte beren gain, eta gastu horiek mugatu egiten dute eskura daukaten egiazko errenta. Horren haritik, zenbait neurri hartu beharko liriateke, ezgaituek egin behar duten ahalegin ekonomiko handiago hori aintzat hartuko dutenak, ezgaituek gizarteratu ahal izateko eta gizartean normalki parte hartu ahal izateko.



Krisi ekonomiko eta finantzarioak oso gogor eragin du familia askorengan, baina are gogorrago kide batzuk langabezian dituzten edota diru-sarrerarik ez duten etorkinen familiengan. **Etorkinen egoera ahulagoa da hemengo familiekin alderatuta**, batez ere guraso bakarreko familiak badira. Gero eta elementu kezkarriagoak azaleratzen ari da adingabe atzerritarren txirotasuna.

Ildo horretan, gizarte politikak aintzat hartu behar dute **zaurgarritasun egoera eta gizartean zailtasunak edo beharrak izatea, alde batera utzita beste faktore batzuk, hala nola pertsonen jatorria eta egoera administratiboa**.

Ijitoen estigmatizazioa oraindik ere oztopo da, haien gizarte, ekonomia eta kultura sustapena eragozten baitu. Batzuek zailtasun horiek gainditu, ikasketak egin eta lanpostu duina lortu ahal izan badute ere, oraindik ijito asko daude bizileku egokirik gabe, urik eta argindarrik gabe, beste gabezia batzuen artean. Lehenetsuneko izaten jarraitzen du bereizkeriaren aurkako borrokak eta arrazakeriaren edo ijitoen duintasunaren kontrako egoera diskriminatzaile eta iraingarrien salaketak.

Lan egin behar dugu balio sozial eta hegemonikoak aldarazteko eta sexu eta emozio aniztasuna onartzeko. **LGTBI** neska-mutiek eta guraso bakarreko familien seme-alabek baldintza eta aukera berberak izan behar dituzte eskolan eta gizartean, euren askatasuna, garapena, duintasuna, autoestimua eta segurtasuna babesteko eta ikusezinak izatea saihesteko.

Euskadin, **familiantzako laguntza publikoa** hurbileko zerbitzu eta baliabide komunitarioetara bideratu da: adibidez, Haurreskolak haurren zaintzaren esparruan, edo eguneko zentroak, mendetakotasuna duten pertsonentzat. Hala ere, euskal administrazioek indartu egin behar dituzte lana eta familia bateragarri egiteko programak eta zerbitzuak.

Euskadi lehen-lehenik aztertu behar diren gaietako bat hau da: **baliabide edo babes bereziak merezi dituzten familia egoerak identifikatzea**, esparru bateratua sor dadin administrazioek ezarri dituzten neurriak jasotzeko eskubidea dutenentzat. Halakoxea da, adibidez, guraso bakarreko familien kasua.

6. BERDINTASUNA ETA EMAKUMEEN OSOTASUN FISIKOA

Iaz genero-indarkeriazko kasu berriak deitoratu behar izan genituen: Euskadin Mari Luz Alejo Rodríguez eta bere ama Amelia Rodríguez erail zituzten, Abadiñon, eta Andina Pereira, Mungian. Eraso larri edo eraiketa bakoitzaren ondoren, zehatz-mehatz ebaluatu behar da gertatutakoa, aztertu behar da zer hobetu daitekeen arlo hauetan: poliziaren eta gizartearen babesa, informazioa, biktimei laguntzea eta tratatu txarrak antzematea, haiei kontra egiteko horrelako kasu tragikoak berriz gerta ez daitezen.





Oraindik ere zailtasunak daude emakumeek kultura, arte eta hainbat kirol eta jaietan.

Horren haritik, Irungo eta Hondarribiko alardeetan desberdintasunak agerikoak dira oraindik ere eta gizartearen nolabaiteko babesa dute. Egoera horren aurrean, erakunde publiko eskudunek ez dute beharrezko erabakitasunez jokatzeko desberdintasun horiek murrizteko. Erakunde gisa, bada, behin eta berriz azpimarratu behar dugu agintari publikoek ekimenak sustatu behar dituztela, ekintza positiboko neurrien bidez, emakumeek eremu horietan duten berdintasun eskubidea defendatzeko.

7. ESPETXERATUAK ETA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA

Buru-gaixoen zaurgarritasuna bereziki nabarmena izaten da pertsona horiek zigor sistema judizialarekin harremanak izaten dituztenean edo espetxean daudenean. Horrela erakutsi du Arartekoak aurkeztutako txosten berezi batek, [Askatasunik gabe dauden pertsonen buruko osasunari EAEn emandako arreta soziosanitarioa](#) izenburukoak.

Aldi berean, berriz egiaztatu dugu zer-nolako abantailak dituen **osasun arloan 2013an ezarri zen espetxeetako laguntza-eredu berriak**. Eredu horrek osasun-laguntza publikoaren egitura orokorraren zati bat bezala definitzen du espetxekeko osasun-baliabidea.

Bitartekotza da, oraindik ere, justiziaren eremuan berri on gehien sortzen duten arloetako bat. Hiru puntu nabarmendu beharko lirateke: **gazte justizian** duen birtualtasuna; indartsu sartu da **lankidetzaren zuzenbidea**, gatazkak konpontzeko ordezkari metodo bat baita; eta **justizia konpontzailea**: eredu horren tresna bat bitartekotza da eta, hori aplikatzeko orduan, Euskadi bide-erakusle izaten ari da.

Ikusi denez, **doako justiziaren** baliabideak ez dira nahikoak egungo gertakari sozioekonomikoek sortu duten eskaerari behar bezala aurre egiteko; beraz, euskal administrazioak ahalegin osagarria egin beharko du.

8. ETXEBIZITZA ETA KRISI EKONOMIKOA

Babestutako etxebizitzaren eskariaren eta eskaintzaren arteko aldea oso handia da oraindik ere. Botere publikoek neurri normatibo eta ekonomiko sendoagoak hartu behar dituzte, herritarrek etxebizitza duin eta egokiaz gozatzeko duten eskubidea modu eragingarrian ziurtatzeko.





Etxebizitza Legeak, jakina, epaimahaien aurrean etxebizitzaz gozatzeko eskubidea bete dadila eskatu ahal izatea ziurtatu behar du. Horrez gain, euskal administrazio publikoek ahalegin handia egin behar dute aurrekontu aldetik, batez ere egoki eta eraginkortasunez erantzun nahi badiote alokairu-erregimeneko etxebizitza babestuen gero eta eskari handiagoari.

2014an egin ditugun esku-hartzeak aztertu ondoren, agerikoa da euskal administrazio publikoak jabetzen ari direla etxebizitza-politika publiko egokia gauzatzeak duen garrantziaz, herritarrek bizimodu duina izan dezaten. Horren haritik, neurri egokiak hartu dituzte alokairu publikoen prezioari eusteko eta familia askok, gabezia ekonomikoak badituzte ere, babes publikoko etxebizitzaz modu egonkor eta iraunkorrean gozatzeko aukera izateko.

Etxebizitza arloan pobrezia eta bazterkeria saihestu nahi badira, elkarrekin koordinatu beharra daukate etxebizitza eta gizarte-laguntza arloetako administrazio publiko eskudunek.

9. HERRITARREN SEGURTASUNA

Poliziaren zeregina, jakina denez, zeregin garrantzitsuenetako bat da edozein gizarte demokratikotan, herritarren eskubide eta askatasunak bermatzea duelako helburu, herritarrak seguru eta lasai egon daitezen zainduz eta, horretarako, delinkuentziaren kontra borrokatuz. Beraz, Ertzaintzako eta udaltzaingoetako agenteek egiten duten lana nabarmendu nahi dugu, eta lan hori eskertu, polizia kidego horiekin erabiltzen baititu Arartekoak bere eskumenak.

Polizia jarduera gauzatzeaz jaso ditugun kexetan, beste ekitaldi batzuetako gaiak agertu dira berriro, esate baterako, indarraren erabilera, horren barne kontrola; ustez zuzenak izan ez diren jardueren barne-ikerketa; argiketak kontrolatzea, horiek eragin dituzten gertakariei dagokienez; bide publikoko identifikazioak eta araketak; atxiloketa-aldiko gorputz miaketa; falta hutsengatik, edo, areago, arau-hauste penalak ez diren gertakariengatik atxilotzea; agintekeria eta agente batzuek identifikazio profesionalaren zenbakia emateari uko egitea.

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailari gomendatu diogu **neurriak har ditzala Ertzaintzan arraza profilak egitea saihesteko eta kontrolatzeko**; izan ere, gure aburuz, jokaera horrek ez du balio delinkuentzia prebenitzeko, ez dauka justifikaziorik eta diskriminatzailea da.





10. INGURUMEN EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA

Herritarren osasun egoera eta ongizatea sustatu eta babesteko, administrazio eskudunei neurri egokiak onartzeko proposatu diegu, Uraren Zuzentarau Esparruari jarraiki, gizakiok kontsumituko dugun uraren ingurumen-egoera egokia izango dela bermatzeko.

Gizarte zibilarekin elkarriketan eta partaidetzan aritzeko guneak sustatzea da helburu estrategikoetako bat. Helburu horri jarraiki, Arartekoak hainbat neurri proposatu ditu informazioa gehitzeko eta herritarren partaidetza bultzatzeko ingurumen-kontrolaren arloan, esate baterako, Petronorri buruzko mahai bat eratuz.

Ingurumenaren arloko informazioa jasotzeko eskubidea dela eta, Arartekoak nabarmendu du informazio-eskaerak azkar, lehentasunez eta hilabeteko epean bideratu eta ebatzi behar direla, epe hori ezartzen baitu uztailaren 18ko 27/2006 Legeak (ingurumen-gaietan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegietara joateko eskubideak arautzen dituen horrek).

11. HIZKUNTZ ESKUBIDEAK, KULTURA ETA KIROLA

Hizkuntza-eskubideei dagokienez, oraindik ere badira polizia-, judizio- eta osasun-esparruei buruzko kexak, baina hobekuntza ikusi dugu eragindako botere publikoek kexa horiek kudeatzeko orduan. Horrela, 2014. urtean laguntza handiagoa eman da eta plangintza-tresna berriak jarri dira. Tresna horietan bildu dira erakunde honek gai horretan aldeztu dituen irizpide batzuk.

Kirol arloan, eskola-kirolean parte hartzen duten erakunde ororen –publiko nahiz pribatuen- oinarrizko betebeharrak bat azpimarratu behar izan dugu: adin horietan kirolak sustatu behar duen **parte-hartzeko eta hezteko jarreraren** arabera jokatzeko une oro.

12. KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK

Ararteko erakundeari eman zaion eskumen-eremutik kanpo dago finantza eta kreditu erakundeen jarduera kontrolatzea. Hala ere, Arartekoaren jarduera eskatzen dutenei aholkuak ematen saiatzen gara, egin zaizkien bidegabekeriak organo eskudunei azaltzeko aukera izan dezaten.

Egungo ekonomia- eta finantza-krisia argi islatu da herritarrek egin dizkiguten kontsulten edukian. Herritarrak kezkatuta daude banketxeek komisio baten zenbatekoa areagotu dutelako edo orain arte doan eskaintzen zen zerbitzu





batengatik kobratzen hasi direlako. Halaber, haserrea sortu dute gai hauek: pertsona nagusiei beraien adinekoek eskatzen duten inbertsioaren ezaugarriekin bat ez datozen finantza-produktuak saldu zaizkie edo ezin da pentsio-plan bat erreskatatu.

13. DATUAK BABESTEIA ETA INFORMATZEKO ETA KOMUNIKATZEKO TEKNOLOGIAK

Gero eta gehiago erabiltzen ari da herri-administrazioek daukaten **informazioa lortzeko eskubidea**; horretarako, administrazioek jarrera bermatzaileak izan behar dituzte alderdi guztien eskubideekin, lehian dauden eskubideak neurtu behar dituzte eta, informazioa eskuratzea ukatzen denean, horretarako arrazoiak azaldu.

Datuak babesteari dagokionez, oraindik ere ikusten dugu gizarte-sareak eta komunikazio-sare publikoak erabiltzean, oro har ez dagoela ez informaziorik, ez kontzientziaziorik, eta ez direla saihesten jokabide arriskutsuak.

* * * * *

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet Ararteko erakundean zerbitzuak egiten dituztenei, beraien ardura sutsuagatik eta konpromisoagatik.

Pozik nago Euskalitek iaz Arartekoari diploma eman ziolako, kudeaketa aurreratuarekin duen konpromisoagatik, eta onartu behar dut gure informatika-sisteman aplikazio aurreratuak sartzearen ondorioz, Arartekoaren lana eragingarriagoa eta emankorragoa bilakatu dela.

Nire mintzaldia bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkizuet zuen arretagatik eta laguntza eskatu nahi dizuet, Estatutuaren eta legearen bitartez legebiltzar ordezkari honi eman zaizkion eginkizunak behar bezala betetzeko.

Mila esker.

